

...eta

# kitto!

849 zkoa.  
2013-V-24

## KALITATEZKO PLAZA



## gure baserritarrekin

Konbinatu  
GRADUATUAK +  
EGUZKITAKO  
GRADUATUAK

97€



Bidebarrieta, 2  
Tel.: 943 20 05 22  
EIBAR

**MULTIÓPTICAS**  
lehena zerbitzu optikoetan



**IRAZABAL**  
clínica dental

**Antonio Murillo doktorea**

PERIODONTZIA, INPLANTOLOGIA, AHO-KIRURGIA

**Ainhoa Zulueta doktorea**

ODONTOLOGIA OROKORRA, PROTESIAK, ESTETIKA

**Susana Sierra doktorea**

ORTODONTZIA, OKLUSIOA

**Maitane G. Iñiguez doktorea**

ODONTOLOGIA OROKORRA, ODONTOPEDIATRIA

ORDUTEGIA

Astelehenetik ostegunera

**08.00 - 22.00**


Zapatuetan

**10.00 - 14.00**

**IRAZABAL HORTZ-KLINIKA**

Julian Etxeberria, 12 - 1. Esk - Tfnoa. 943 20 85 52

[www.clinicairazabal.com](http://www.clinicairazabal.com) - [info@clinicairazabal.com](mailto:info@clinicairazabal.com)



# ASTEAN ESANAK

"Jendeak ez daki zein eskubide lagatzen dituen teknologiaren menpe. Nire sare sozialean 550 lagun baditut, jakin behar dut denak ez direla lagunak. Kontaktu profesionalak akaso, baina ezin dizkiet nire argazki denak bidali" (IÑAKI PARIENTE, DATUEN BABESERAKO AGENTZIA)

"Inozoa da guztiz M-15ekoen mugimendukoena, ez dagoelako biolentzia erabili gabeko iraultzarik. Beldurra ematen du esateak eta gogorra egiten da onartzea, baina kartel eta txarangekin ez goaz inora" (VICENTE VERDU, SAIO-IDAZLEA)

"Klimaren aldaketa katastrofikoak saihestu behar dugu. Hala segituz gero, mendearen amaieran batez besteko tenperatura 4° C igoko da, eta ez espero zen bezala 2° C. Egun hauetako tornadoko abisua da." (KOLDO NUÑEZ, ENPRESA AHOULKARIA)

"Bizitzaren hasiera eta amaiera geneetan bilatu nahi da, baina ikuspegi okerra da. Joera egon daiteke, baina horrek ez du esan nahi garatuko denik. Genetikak bezain beste garrantzi dute inguruneak eta baldintza sozialek" (SALVADOR DARIO, BIOETIKAN KATEDRADUNA)

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskerara

JATEKO.- Janaria, jana. "Jarri mahaixan, jatekua prest dago-ta".  
JATORDU BAKUA.- Otorduak desorduan egiten dituen. "Gure mutilla, jatordu bakua, beti maixa jaso ta gero agertzen da".  
JATORRI ONEKO.- Etxe onekoa, familia onekoa. "Ha gizajua jatorri onekua izan arren, eskera emonda bizi da".

# eskutitzak

## GIZA ESKUBIDEAK, KONPONBIDEA, PAKEA EUSKAL PRESOK EUSKAL HERRIRA

600 inguru dira Euskal Preso Politikoak; horietatik 70ek kondena beteta dute, 15ek gaixo larriak dituzte eta beste 144k baldintzapeko askatasunean egoteko kondizioak betetzen dituzte, eta guzti hauek aspaldi behar zuten kalean.

Spainia, Frantzia, Ingalterra, Ipar Irlanda eta Portugalgo 80 kartzelatan sakabanatuta daude, Euskal Herritik oso urrun ia denak, eta beste 10, euren etxeetan daude preso, gaixo daudelako espetxeratze arinduan.

Egoera, beraz oso larria da, eta espetxe politika aldatu arazi beharra daukagu. Hau behar beharrezkoa da, baldin eta gure Presoak inoiz libre eta osorik ikusi nahi baditugu.

Horregaitik berriro ere, **azken ostirala**, Euskal Preso eta Iheslari Politikoek eskubideen eguna dela eta, maiatzaren 31n, 19:30etan Untzagan kontzentrazioa egingo dugu, eta bertan parte hartzera gonbidatzen zaituztegu. Animatu eta azaldu.

**EIBARKO HERRIRA**

## ¿ERREBAL: PROCESO PARTICIPATIVO?

Errebalen zer egin pentsatzeko prozesuaren aurkezpenean egon nintzen eguaztenean. Harrituta eta haserre joan nintzen etxera batzara bukatzean. Valentziako enpresa batek egin zuen aurkezpena, eta berak gidatuko ei du prozesua M Etxearekin batera. Aurkezpena espainieraz izan zen, noski. Prozesu

herritarren aldekoa naiz, baina hauen arrakasta eta kalitatea bermatzeko ezagutza, gertutasuna, hizkuntza... ezinbesteko baldintzak iruditzen zaizkit. Eta prozesua gutxienez euskaraz izatea Eibarko udalaren baldintzetako bat izan beharko litzateke.

**IGONE LAMARIN**

## erredakzioaren oharra

**Datorren asteko eguenerako iragarrita dagoen greba orokorra dela-eta, inprentara eguaztenean joango gara. Hori dela-eta, edozein informazio kaleratu nahi duzuela edo zorion agurren tarterik eskaini, kontuan izan martitzenerako bidali behar diguzuela.**

**BARKATU ERAGOZPENAK**



Euskara Elkarteak

**ARGITARRAZTARILEA:** ...eta kitto! Euskara Elkarteak. **HELBIDEA:** Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar  
**TELEFONORAK:** 943 20 67 76 / 943 20 09 18. **FAXA:** 943 20 28 72.  
**Astekararen E-MAILak:** erredakzioa@etakitto.com / komunikabideak@etakitto.com /  
publizitatea@etakitto.com **Elkarteen E-MAILak:** elkarteak@etakitto.com / normalizazioa@etakitto.com  
**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:** Itziar Albizu, Maider Aranberri, Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez,  
Koldo Mitxelena. **ADMINISTRAZIOA:** Marisol Uriarte. **KOORDINATZAILERA:** Koldo Mitxelena.

**ERREDAKZIO-BURUA:** Silbia Hernandez. **DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** Jose Luis Gorostegi.  
**ARGAZKI AROA:** Leire Iturbe eta S. Hernandez. **HIZKUNTZA ARDURA:** Juan Andres Argoitia eta Maider Aranberri.  
**PUBLIZITATERA:** Itziar Albizu eta Belen Ulazia. **Tfnua:** 943 20 67 76. **AZALEKO ARGAZKIA:** Silbia Hernandez  
**BANAKETA-ARDURADUNA:** Ainhoa Luz. **TIRADA:** 8.050 ale. **INPRIMATEGIA:** GERTU koop. (Oñati).  
**COPYRIGHT-A:** ...eta kitto! **LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679  
("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzunkizunik)



**EIBARKO  
UDALA**



**GIPUZKOAKO  
FORU  
ALDUNDIA**



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA SAILA  
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO  
SAILBURUORDETZA)**

**kutxa** gizarte ekintza

Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak,  
Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Kutxak  
diruz lagundutako aldizkaria



## On Ekin lehiaketarako epia ixtear

On Ekin lehiaketara proiektuak aurkezteko epia astebete luzatzia erabagi dabe antolatzailliak, epia amaitzeko gitxi falta zala hainbat ekin-tzailek parte hartzeko interes handia zekela ikusi ebelako. Holan, parte hartu nahi dabenak astelehenera arte eukiko dau horretarako aukeria. Irabazliak ezagutzera emeteko ekitaldixa Deporren egingo da ekaiñaren 6xan (20.00etan) eta nahi dabenak ekitaldixaren ondoren egingo dan afarira juateko aukeria izango dau. Horretarako alde zurretik 30 euro (erdixa dirusarirako da) sartu biharko dittu Rural Kutxako 3008 0171 66 2613434220 kontu korrantian (izen-abizenak adieraztia ahaztu barik). Argibide gehixagorako sartu [www.ekingune.com](http://www.ekingune.com) helbidian.

## Ibillaldirako autobusak, T. Etxebarriatik

Domekan Portugaleten ospatuko dan Ibilaldira juateko autobusak antolatu dittue ...eta kitto! Euskara Elkarteak eta J.A. Mogel Ikastolako gurasuen alkartiak eta, saldatako sarrera kopuru altua ikusitta, autobusak Toribio Etxebarria kaletik urtetzia erabagi dabe (eta ez Ego-Gaiñetik, hasieran pentsautako moduan). Eibartik 09.30xetan urten eta bueltia 19.30xetan egingo dabe.

## Eskubide sozialen kartia sortziar

Datorren asteko eguenerako, maiatzaren 30erako greba orokorra deittu dabe sindikatu eta eragille sindikalak karta soziala eratzeko lehen batzarra egingo dabe bixar zapatuan Eibarren, 09.30xetatik aurrera Hezkuntza Esparruan. Asmuaren barri emeteko ekitaldixan, "Euskal Herrixan eredu ekonomiko eta sozial berezkua lortzeko bidian aldaketan parte hartu nahi daben eragille guztieri, Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartaren sortze-prozesuan modu aktibuan parte hartzeko" dei egin nahi detse. Bixar Eibarren egingo dan



Karta soziala eratzeko lehelengo batzarra bixar egingo da Eibarren.

lehen batzarrarian gutuna eratzeko metodologixa aurkezteko asmua dake. Eta arratsalderako Bilbon, Donostian eta Gasteizen egingo diran manifestaziñuetan parte hartzera animau nahi dittue herrittarrak.

## Museuen eguna "made in Eibar"

Umiak eta nagusixak, bixak ondo baiño hobeto ibilli ziran aurreko zapatuan Museuen Naziñoarteko Egunaren harira Armagintza Museuak antolatutako "Made in Eibar" talla-



rrian. Museoko arduradunen berbetan, "Eibarko historixan barrena murgilduta, hasteko industriaz jardun genduan eta, bestiak beste armagintzaz, industria auxiliarrak eta bere antolatzeko moduak gure herrixan izandako garrantzixaz egin genduan berba". Azalpenetarako tartia amaittuta, alde praktikua lantziari ekin zetsen: "Handik eta hamendik hartutako osagarrixekin, asmakizun barrixak sortu eta hamen laga zeskuezen tallarrian parte hartu ebenak". Tallarrak oso harrera ona euki eban eta, horrekin animauta, museoko arduradunak hurrengo ekintzak preparatzen hasitta dagoz.



**GASPAR ALVAREZ**  
**I. URTEURRENA**  
(2012-V-25)

Zure emaztea eta alaba



## Sua Bidebarrieta kalian

Martitzen arratsaldian, 18.00ak aldera sua piztu zan Bidebarrieta kaleko etxe batian, Aurrera erai-kiñaren parian. Udaltzai-ñak emondako argibidie-ri jarraituta, 3. eskillara-buruan oiñetakuak gorde-tzeko altzariren batek hartu eban sua, segurue-nik kutxa-elektrotik ur-tendako txinparta baten



eragiñez eta sugarrak goiko pisuetaraño ai-llegatzia galarazten eben. Sua piztu zanian lehen solairu bixak hutsik eguazen eta sua bizkor amatatzia lortu ebenez, zorionez ez zan iñor zauritu. Suhiltzailliak sua zabaldu eta ezer larrixagua pasau baiño lehen aille-

gau eta amatatzia lortu eben. Edozelan be, biharian jardun eben bittartian kamioiak errepidian eguazenez, suhiltzailliak jua eta bidia libre laga arte, Bidebarrietatik behera zoiazen ibilgailuak Urtzaille kaletik desbi-deratzen jardun eben udaltzaiñak.

## Herriko Plazara, baiña arkupietan



Aurreko zapaturako Herrirak egindako deixarekin bat egiñ eban Eibarko Herri-rak eta, Euskal Herriko eta hamendik kanpoko hainbat herrittan egindakuaren bidetik, gurian be jai giruan eskatu zan atzera be euskal presuen eskubidiak errespetatzia: bestiak beste umiendako jarduerak, musikak eta bertsoariak tartia euki eben zapatu arratsalderako antolatutako programaziñuan. Hori bai, euritik babesteko udaletzeko arkupietan egin zittuen jarduera guztiak.

## autuan

### IBERDROLAREN KONTRATUAK

Kontsumo Buleguak aditzera emon dabenez, Iberdrolako saltzailliak etxerik etxe dabiz gas eta elektrizidade hornikuntzarako kontratuak eskintzen. Horren harira zalantzak sortu dirala eta, argibide batzuk emon dittue: eskintzen diharduen kontratuetan tarifa libriak aplikatzen dittue eta, horregaittik, gobernua onartutako tarifakaziñuari jarraitzen detsenak baiño karuaguak dira. Bestalde, kontratua siñatu eta zazpi eguneko tartian bertan behera lagatzeko aukeria dago.

### JUBILAUEN TABERNIA

Untzagako jubilaue etxeko tabernia alkilerrian eskintzen dihardue. Taberniaren arduria hartzeko interesa dakenak jubilaue etxeko buleguan jaso leikie bete-biharreko baldintzen gaiñeko dokumentaziñua, ekaiñaren 7ra arte (12.00xetatik 13.30xetara 1. pisuan, liburutegixan).

**f**

**Funeuskadi Eibar**  
SERVICIOS FUNERARIOS

Beilatokia Funeuskadi Eibar: Otaola, 27      Bulegoa: Bidebarrieta, 6

**24 orduko zerbitzu iraunkorra**

☎ **943 82 15 39** · [www.funeuskadi.com](http://www.funeuskadi.com)

**GRUPO Funeuskadi**  
El primer grupo funerario de Euskadi

· Eibar · Donostia · Bilbao · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao · Portugalete · Santurtzi · Galdakao · Sodupe · Espinosa de los Monteros ·

RD 1561/2007  
BUREAU VERITAS  
Certification  
Fi-Tarjetas y Crematorios

943 56 71 59      [naturalbiodenda@gmail.com](mailto:naturalbiodenda@gmail.com)  
[naturalbiodenda.com](http://naturalbiodenda.com)

**natural**  
BIO • DENDA  
Bidebarrieta, 6

**Kontsulta dietetiko**  
ekainetik aurrera  
astelehenero: 08.00-12.30

**Osasuna jateko**

**SUKALDARITZA  
MAKROBIOTIKOA  
IKASTAROA Portalean**  
Ekainaren 22an eta 29an  
Interesatuak deitu  
943 56 71 59 zenbakira



## Presuen eskubidien aldeko konpromisuak

Debarrenako EH Bilduko zinegotzi eta alkatiak euskal presuen eskubidien aldeko hainbat konpromiso hartu ditue eta hórren barri emoteko agerraldixa egiñ eben astelehen eguargidan Eibarko udaletxian. Agerraldixan, Eibarko ordezkariarekin batera Deba, Mutriku eta Soroluzeko alkatiak egon ziran. Urtarrillaren 12xan sekula baiño jende gehixago batu eban Bilboko manifestaziñuan aldarrikatutako "Giza eskubideak. Kon-

ponbidea. Bakea. Euskal presoak Euskal Herrira" goiburuari helduta, hartutako konpromisuak banan-banan azaldu zittuen. Bestiak beste, herri bakoitxeko presuen egoeraren gaiñeko udal dosierra osatzeko asmua dake eta txosten hórrek Instituciones Penitenciarias-era, Audientzia Nazionaleko espetxe-zaintzako epaillari, Justizia Ministeriuetara eta Estrasburgoko Giza Eskubidien Batzordiarri helaraziko detsez.

## Nutriziñuaz jardungo dabe domekan

Domekia (maiatzak 26) Nutriziñuaren Eguna da eta, horren aitzakixarekin, Hitzez (basarriko emakumien alkatiak) Silvana Huegun nutrologuarekin "Ondo jan hobeto bizitzeko" izenburuko hitzaldixa antolatu dau (10.30xetan, Unzaga Plaza hotelian). Hitzaldixa amaittu eta jarraixan Eibarko hainbat toki (museua, San Andres eliza...) ezagutzeko asmua dake eta bazkaria, barriz, Arrateko Krabelin jatetxian izango da.



## Euripian, baiña umore onian

Eguraldi eskasari kaso egin barik, ondo baiño hobeto emon eben aurreko asteburua Abontzako Itturixia alkatiak antolatutako jai-xarekin bat egittera animau ziranak. Egiguntarreneko arkupiak eskindutako babesari esker, aurreikusitta eguazen ekitaldi guztiak arazo barik egin zittuen eta, musikia eta umore ona tartian, ixa etenbarik botatuko eurixak ez eban jaixa zapuztu.



Adin guztietako jendiak dantzatu eban paillazuekin. LEIRE I.

## Tallarra eta maskota lehiaketa

Bixar arratsalderako umiendako tallarra antolatu dabe El Corte Inglés-ian: 17.30xetatik aurrera Afrikako maskarak egitten ikasiko dabe parte hartzeko izena emoten daben umiak (izen-emotia liburu saillian egin biharko dabe aurretik). Bestalde, uztaillaren órako maskota lehiaketa be antolatu dabe merkataritza zentruak. Parte hartzeko bete biharreko baldintzeri jarraituta, txakur, katu edo bestelako animaliren bat dakan edozeiñek izango dau lehiaketara aurkezteko aukeria, dendako 4. pisan dagan animalixen saillian alde aurretik izena emonda (epia ekaiñaren 22xan itxiko dabe). Izen-emotia musutruk da eta antolatzailliak hiru taldetan bereziko ditue

animalixak: txakurrak (A), katuak (B) eta bestelako maskotak C. Talde bakoitxian, barriz, honako azpimailak egongo dira: A taldian, trebiena eta koka-jantzi originalena; B taldian, dotoriena edo pinpiriñena eta koka-jantzi originalena; eta C taldian kategorixa bakarra dago (xelebriena). Mailla eta azpimaila bakoitxian hainbat sari banatuko ditue.

III. CONCURSO DE MASCOTAS MASKOTA LEHIAKETA

6 de Julio-Uztailak 6

Torraca 3ª planta - 3. solairuko torraz

Organizazioa: El Corte Inglés de Navarra - Espetxe Zaintza



## Luis Mari Aguirre Bildosola

I. Urteurrena: 2012-V-27

**GOGOAN ZAITUGU**

zure familiakoak



# Euskal Jaiarekin DANTZARA!!!



Aurretik aurtengo Euskal Jaiaren egitaraua beste hainbat ekimenek osatu badute ere, gaurtik domekara arte etenik gabeko programazioak beteko du Klub Deportivoak antolatutako "inoiz baino herritarragoa" den 48. edizio hau. Dantza ikusteko eta dantzan egiteko aukerekin batera, ondo bazkaldu eta afaltzeko parada izango da karpan; baita baserritarrez jantzi eta gure herria dotoretzeko parada ere.

**K**alian Jolasiaren aktibitatearekin hasiko da gaurko programazioa: 17.00etan hasi eta pare bat ordura luzatuko den ekimenean, umeendako modu naturalean euskaraz jarduteko prestatutako hainbat jokorekin. Jarraian euskal musikarekin girotutako kale animazioa izango da protagonista, hasi 19.30etan eta 22.30ak arte. Markinako Akodas Bozine elektrotarangak ipinitako martxari Untzagako karpan hasiko den kontzertuak emango dio jarraipena. Hor eMePebo5t errokméria taldia bere onenak ematen saiatuko da, mota askotako musika eta abestiak tartekatzuz.

Biharko eguna guztiz beteko du programazioak, hasi goizeko 10.00etatik eta gauean ondo sartu arte. Artisau eta baserritarren azokak T. Etxebarrian kokatuko ditu bere postuak, baita AEK-koen taloarena ere. Eguerdian aldean herrikirolak nagusituko dira, tartean seigarren edizioa beteko duen eskolen arteko lehiaketarekin.

Arratsaldean, bestalde, bertso-triki herri parrandak girotuko ditu hiriguneko kaleak kantu-afariaren ordua iritsi arte. Aurten bai kantu-afarirako eta baita herri-bazkarirako ere, txartel guztiak aurreko domekarako agortu ziren: "400



Herri-kiroletan modalitate ezezagunagoak egingo dira. LEIRE ITURBE

lagunean ipini genuen muga eta ez dago toki gehiagorik. Ahalegin berezia egin dugu prezioa ere merkatzen eta, elkartate gastronomikoei eta Oberekenakoei esker, gure asmoak betetzea lortu dugu", dio Mariano Luke antolatzaileetakoak. Jakina: Jainaga, Garate eta Narbaizarekin luze iraungo du kantu-afariak.

## Sorgin-dantzak domekan

Domekan, Euskal Jaiaren egun handia izanik, Urkizutik Untzagarainoko ohiko kalejirarekin hasiko da eguna, Untzagan Ezpalak jaialdia eskaintzeko. Hor, Kezka dantza taldeko Oier Araolazaren esanetan, "dantza-joko bera izan-

go da protagonista, doinu antzekoa erabiliz, eta bikoteka egiten den dantza-jolasarekin. Elkarriz sudurretik edo belarritik helduz batzuetan, ukalbi-kadak, kolpeak eta tiroak botatz bestetan, eta besarkadak eta muxuak emanez bukatzen dena gehietan. Sorgin-dantza hemengo dantzatzat badaukagu ere, konturatuko gara Norwegian, Katalunian edo Okzitanian ere badaukatela dantza beraren euren bertsioa".

Gero ondo merezitako herri-bazkaria etorriko da eta, behin arratsaldean, erromeria Aiko taldearekin eta larrain-dantza popularrekin amaituko da aurtengoa. Hori bai: ez ahaztu baserritar jantzea!



Norvegiako hiriburutik Hoki-Sohuta maskardak etorriko dira.

Zapatu goizian, Euskal Jaixaren barruan, basarritar eta artisau azokia ipiñiko dabe Toribio Etxebarria kalia eta han izango dira Eibarko zazpi basarri: Gisasola, Mandiola Gaiñekua, Barrundi, Mendigoitxi, Zelaikua, Sumendixa eta Sosola. Euretako batzuk bixarko azoka berezitik kanpora be, urte osuan jarduten dabe basarrixan hazittakuak saltzen merkatu plazan. Debemenek antolatuta, martitzenian Kultun egindako mahai-inguruan euren ahotik entzun genduazen Eibarko plazaren gaiñekuak.

# PLAZIA basarritar eta bezeruen ahotan

Sosola basarriko **Enrike Gisasolak** gidatutako mahai-inguruan Gisasola basarriko **Ane Gisasolak**, Mandiola basarriko **Olatz Mandiolak**, Barrundi basarriko **M<sup>a</sup> Jose Unzetabarrenetxeak** eta Sumendixa-behekua basarriko **Miren Iriondok** jardun eben berbetan, **Iñaki Osoro** eta **Ramon Arizaga** bezeruekin batera. Mahainguruari ekiteko, Sosolak urtietan atzera egitteko proposamena egin zetsen mahaiqueri, batez be hizlarixen arteko nagusixenari, plaziaren gaiñeko bere lehelengo oro-

tzaipenak kontatzera animauta. Oindiok be Sumendixa-behekua basarriko produktuk plazara saltzera eruaten segitzen daben Mirenek Errebal kalekuaren aurretik eguan plazia gogoratzen dau: "Lehengo plaza zaharra Bidebarrieta kaltetik sartuta eguan eta akordatzten naiz zelan beheko pisuan arraindegixak eguazen eta basarritarrak, barriz, goiko pisuan. Orduan sasoian Eibarren ez eguan basarri askorik eta, horregaittik, Eibarko basarritarrak baiño askoz gehixago ziran bizkaitarrak, Bariñatik



Eibarren plazia derrigorrezkua dala argi ikusten dabe mahaixan egon ziran guztiak.

eta beste toki batzuetatik mordua etortzen ziran, esniakin, patata barrixakin... Ha bota eta gerria amaittu eta gero, Errebalen jaso eben hamen gauzenak ezagutu dogun plazia. Hortxe be arraindegixak beheko pisuan, harategixak gaiñian eta basarritarrak, tokiha haunditu eta haunditu arren kabidu ezinda ibiltzen giñan. Orduan sasoian Eibarko plazia itzela zan".

Mari Jose Unzetabarrenetxea umetan, 13 urte zittuala amamari laguntzen hasi zan plazara juaten eta urte batzuk

tallarrian biharrian emon eta gero, basarrikuak plazan saltzia bizimodua etartzeko bidia bihurtu zan berarendako eta gaur egunian be horretan dihardu: "Tallarrian biharrian neguala be ez netsan laga plazara juatiari, 19 urterekin astebarrian tallarrian jarduten neban eta zapatuan biharrian segitzen neban, basarrikuak plazan saltzen. Urte guzti honetan plazia beti jende morduarekin ezagutu dot".

## Hartuemonetarako tokixa

Gaur egunian be plazako bezera dan Ramon Arizagak umetan plazara erosketak egittera zelan juaten zan gogoratzen dau: "Jardiñetan bizi giñan eta txikitan amari laguntzen juaten nintzan. Piskat koskortzian, hamar bat urterekin amak emondako listiarekin eroatera bakarrik juaten hasi nintzan, lehelengo gauza errezak bakarrik, esnia, okelia-eta. Arraiña konplikauagua zan eta geruago hasi nintzan holako kontuekin. Nik plaziaren gaiñian dakaten rekuerdun, plazia jatekuak



Debemenek antolatutako mahainguruan plazaren iragana, oraifia eta gerua aztertu ziran. SILBIA HERNANDEZ



erosteko tokixa baiño askoz gehiago zan. Oin dala urte batzuk horrenbeste telefono-eta ez egotian, komunikaziñorako toki aproposa be bazan. Jende mordua bertan batzian batzuk bestien barri izateko modua eskintzen eban plazia, moduren batian esateko, zentro soziala zala pentsatzen dot".

#### Astuakin kalera

Bezerua dan Iñaki Osorok plazia bete-beteta gogoratzen dau, "basarrittarrendako tokian dana beteta egoten zan, eta Mirenek diñuan moduan asko bizkaitarrak zirala akordatzen naiz. Hortik aparte, gaiñera, Eibarren plaza asko egon dala esango neuke, orduan sasoiaren Errebalera juaten ziran basarrittarrez gain beste askok etxerik etxe saltzen ibiltzen ziralako. Oindiok akordatzen naiz zelan egoten ziran lau asto Bista Alegren, orduko Mickey Mouse diskoteka parian lotuta".

Lehengo kontuak gogoratu eta jarraixan, basarrittar gaztiak plazia oin zelan ikusten daben azaldu eben. Olatzek diñuanez, "basarrikua bihar gogorra da eta horretan dihardugun gaztiak gitxi gara. Zazpi urteko prozesuan ikusi dote-



nez bezeruak be gero eta helduguak dira, gazte gitxi juaten da plazara erostera".

Ane be bat dator lagunak esandakuekin: "Gure aittak egunero basarrixan egin biharrekuak egitten dittu, bakarrik horretan jarduten dabelako, baiña konturatzen naiz bera faltau ezker oso gatza izango litzakela basarriko guztiak egiñ eta, gaiñera, plazara gauzak saltzera juatia. Neuk behintzat ez dot ikusten nere burua aittak moduan bakarrik basarrixan biharrian".



**Mirenek bixarko azokan ezeze, urte osuan merkatu plazan saltzen dittu produktuak beste basarrittar batzuekin batera. LEIRE ITURBE**

#### Lan gogorra gitxi irabazteko

Eta bizitza osuan holan diharduan Mirenek arrazoia emoten detse: "Basarrixan 24 ordutan jardun biharra dago, jai eta aste, honetan ez dago bakaziñorik. Lan gogorra da gitxi irabazteko". Eta M<sup>a</sup> Josek be badaki zertaz diharduen: "Egunero plazan bost bat ordu emon eta arratsaldian atzera be ortuan biharrian segidu bihar da. Nere gizonak basarrittik kanpora egitten dau biharra, baiña handik urten eta basarrixan laguntzen dau. Egixa da gogorra dala, baiña neretako merezi dau".

Sasoi batian jendez gaiñezko

egitten eban plaziaren gainberia gizartian gure erosketa ohitturak kanbixatzen hastiarekin batera hasi zan eta, gaiñera, Errebalgo plazia desagertziak beste kanbixo batzuk be ekarri zittuan, baiña aldaketa guztiak ez ziran txarrerako izan: "Rialtorra lehengo plazian eguazen basarritarrak baiño sei gitxiago jua giñan, baiña kalia jende guztiak ikusteko moduan egotia mesede egin deskula pentsatzen dot". Plazia etorkizunian be biharrezkua dala argi dake danak, hori bai, sasoi barrixetara moldatzen jua eta gure gizartian tokixa topatzeko formula asmatu bihar.

**EGOITZA NAGUSIA**  
Bidebarrieta 20 - behea, eskuma

**FUNERARIA MUGICA**

Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Deba

- Tanatorioa eta Errausketa labea
- Elgoibarren (Sigma poligonoan).
- Partikular, mutua eta aseguru etxeei zerbitzuak
- Koroak - Eskelak - Urteurreneko eskelak
- Euskal Herri osoko ospitaletan hartzen zaitugu
- Nazio eta Nazioarteko traslagoak

**Mugica Ehorzketa**  
Funeuskadi taldea

**TELEFONOA (24 ORDU)**  
**943 201 951**

info@gerritek.net  
www.gerritek.net

**SOLUZIO INFORMATIKOAK:**

- Marka guztietako zerbitzu tekniko eta salmenta
- Neurria egindako software-aren garapena

**ASUS**  
**DELL**  
**hp**  
**SAMSUNG**  
**TOSHIBA**  
Leading Innovation >>>

**Gerritek**  
INFORMATIKA

Txaltxa-Zelai, 4-6  
Tel: 943-033892 / Faxe: 943-031521

**MIREYA ETXALUZE AZKONAGA***Astrofisikan doktorea***“Infragorri-teleskopioen datuak garbitu eta aztertzen ditut”**

*Ikastenek gonbidatuta, martitzenean Armeria Eskolan hitzaldia eman zuen Mireya Etxaluze eibartarrak. Madrilgo CAB Astrobiologia Zentruan beharrean dihardu eta 37 urte baino ez dauzkan arren, benetan ikusgarria da astrofisikan izan duen ibilbidea: 2001ean Tenerifen astrofisika ikasten hasi eta 2004an Kuiperren gerrikoaren inguruko asteroideak ikertzeraz Oxfordera joan zen. 2006an hasitako tesian, besteak beste, Japoniako agentzia espazialarekin elkarlanean jardun zuen.*

**- Zergatik erabaki zenuen astrofisika ikastea? Zerk erakarri zintuen horrenbeste?**

Umetatik, oso txikitatik gustatzen zitzaidan zerura begiratzea, bertako izarrak ikustea... Horregatik, astrofisika ikasi nahi nuela oso argi izan dut betidanik, horretan ez nuen inolako zalantzarik izan inoiz.

**- Doktore-tesia egiteko aukeratu zenuen gaia “plano galaktikoa urrutiko infragorrian” izan zen, baina tesia osatzen eman zenuen denboran zer ikertzen jardun zenuen, zehazki?**

Tesian izarrak jaiotzen diren tokiak eta inguruak ikertzeko beharrean jardun nuen. Izarrak molekulek osatutako lainoetan jaiotzen dira eta, laino horiek oso oso hotzak direnez, horiek ikertu ahal izateko derrigorrez izpi infragorriak erabili behar ditugu, horiek behatzeko teleskopioek ere horrelakoak erabiltzen dituzte.

**- Nolako teleskopioak izaten dira? Zein berezitasun daukate?**

Infragorriak erabiltzen dituzten teleskopioak ez dira hemen, lurrean erabiltzen: euren funtzioa betetzeko teleskopio horietako asko espazioan daude, atmosferan

sakabanatuta, toki ezberdinetan kokatuta. Nik teleskopio horiek igortzen dituzten datuak jaso eta, behin horiek kalibratuta, behatu eta ondorioak ateratzen hasteko moduan gaude. Teleskopioak zuzenean bidaltzen dituen datuetan “zarata” ugari, hau da, alperrikako informazio asko egoten da eta ni balio ez duten horiek garbitzen ibiltzen naiz. Une honetan gure galaxiaren erdialdean dagoen gasa aztertzeko beharrean dihardut, hain zuzen ere gas hori nola dagoen osatuta ikertzen dihardut: gasa osatzen duten konposatuak zeintzuk diren, zelako ezaugarriak dituzten... Konposatuetakoz batzuk oso sinpleak dira, adibidez ozpinetan dagoen azido azetikoa, baina beste batzuk askoz ere konplexuagoak dira


**“Izarrak oso laino hotzetan jaiotzen dira eta, horregatik, infragorriak behar ditugu horiek ikusi ahal izateko”**

**- Eta datuen irakurketatik ateratzen dituzten ondorio eta bestelakoak zertarako balio dute?**

Jakintzarako baliagarriak dira, hau da, hainbat esparruren inguruko gure ezagutza gero eta zabalagoa izateko: nondik gatoz? Nola izan da posible gu honaino ailegatzea? Nola hiltzen dira izarrak? Horrelako galderei erantzuten laguntzen digute teleskopioek bidaltzen dizkiguten datuek.

**- Krisiaren aurretik zientzian gutxi inbertitzen bazen, orain egoerak ez zuen hobera egingo ba...**

Zientziak arlo horretan bizitzen diharduen egoera benetan larria da, katastrofiko, gero eta gutxiago gastatzen dute eta ez dago horrelakoetan beharrean jarduteko lanposturik. Gauzak horrela, jendeak etenbarik atzerrira joaten dihardu, beste aukerarik ez dago-eta. Baina hori txarra bada, are okerragoa da beste herrialde batzuetatik ez dutela nahi hona etortzerik, ez zaie egiten bat ere erakargarria eta nahiago dute beste tokiren batera joan, horrek dakarren guztiarekin.



## JOSE RAMON BECKMANN OROZCO III. URTEURRENA (2010-V-29)

**MAITE ZAITUGULAKO, gurekin zaude, gurekin betirako.**

**ZURE EMAZTE, SEME-ALABA ETA AMAK**



## Ekintzaileen Eguna hartuko du Debegesak martitzenean

**AURTEN ERE, AZKEN URTEOTAN EGINDAKOAREN BIDETIK,** Ekintzailearen Eguna antolatu dute Debegesak, "ekintzaileen lana aitortu, esperientziak elkartrukatu, proiektu berriak ezagutzera eman eta Debabarrenean ekintzailetasuna sustatzeko asmoari jarraituta".

Maiatzean ekintzailetasunarekin lotutako hainbat jarduera garatzen diharduten arren, ekitaldi nagusia datorren astean, maiatzaren 28an (martitzenean) egingo da Debegesaren egoitzan (Azitaingo industrialdean). Ekitaldia antolatu dutenen berbetan, "martitzeneko ekitaldian gure eskualdean enpresa berriren bat sortu nahi dutenen eta dagoeneko ekimen berriren bati heldu eta sendotzekotan direnen arteko harremanak bultzatuko dira. Horrekin batera, ekintzaileen eta udaletako zein beste erakundeetako ordezkarien arteko topagune egokia izango da ekitaldia".

Egunerako antolatu duten egitarauari arratsaldeko 18.00etan ekingo diote, En-



**lazio Ekintzaileen Egunean errekonozimendua jaso zutenen taldea.**

presen Azokarekin. Bertan gure eskualdean eratu berri diren enpresek euren produktu eta zerbitzuak ezagutzera emango dituzte. Gainera, azokan parte hartzen izango diren enpresa horien guztien produktu eta zerbitzuak zozketatuko dituzte bisitan joandakoen artean. Ekitaldira joandakoei ongi-etorria egin eta jarraian, 18.30etan eztabaida irekia egingo dela aurreratu dute antolatzaileek. Eztabaidarako aukeratutako gaia, berriz, Debabarrenako etorkizuna da: "Eztabaidari ekiteko Debabarrenean ekintzailetasun grinak bizirik dagoen ala ez galdetuko dugu eta gonbidatuek horren inguruan jardungo dute berbetan. Eztabaida Twitter bidez zuzenean jarraitu nahi duenak horretarako au-

keraz izango du, #EKeguna13 hashtag edo hitz-gakoa erabilia".

Eta egitaraua agurtu aurretik Debabarrena Ekinean errekonozimendua banatuko dituzte 2012. urtean nabarmendu diren eskualdeko ekintzaile eta enpresa proiektuak saritzeko: Plus Ekimena, Iraunkortasuna eta Talde-lana sariekina batera, industria arloan nabarmendu den eskualdeko enpresa bati saria emango diotela azaldu dute. Bestalde, edozeinek izango du antolatutako ekimenetan parte hartzeko aukera, hori bai, alde zuzenetik adierazita (horretarako ekintzaile@debegesa.com helbidera idatzi edo 943 820110 telefonora deitu daiteke, Vanesa Hortas-egatik galdetuta).



**Armeria Eskolan abiatutako proiektu ekintzaileen berri eman zen.**

## EKINTZAILEAK Armeria Eskolan ere

**Armeria Eskolak orain egun batzuk ospatu zuen** Ekintzaile Eguna eta, horretarako, hainbat ekintzailek abiatutako proiektu eta esperientzien berri emateko jardunaldia antolatu zuten. Besteak beste Certificaciones Zualda (Idurre Zuazua), EMA Ergonomia (Mikel Izagirre) eta ekintzaileen azokaren azken edizioan parte hartu zuten Zen Spirit eta Tudesign eman zituzten ezagutzera eta, horrez gain, "Lagun Bikesobre Ruedas" proiektuei errekonozimendua egiteko baliatu zuten ekitaldia.

## Felisa Urkiola Malaxetxeberria

(1. URTEURRENA: 2012-V-21)

**"Bihotz-bihotzean zaramatzagu"**



# GREMIOEN



## lanak **ALTUERAN**

**Eibar Vertical**  
Aldamiorik gabeko lanak altueran  
[www.eibarvertical.es](http://www.eibarvertical.es)  
Errekatxu, 11 - behea  
Tel. 674 81 41 65 / 615 74 97 81  
[www.eibarvertical.es](http://www.eibarvertical.es) eibarvertical@eibarvertical.es

## **AROTZAK**

**IÑAKI**  
Egurrezko mota guztietako lanak Ateak - Tarimak Altzariak  
Milaflores 10 Tfnoa. 943 20 35 55

## **ELEKTRIZITATEA**

Tfnoa: 943-530356  
Mobila 688-674242  
Barrena, 21 - 3. A  
**ALBERTO ELEKTRIZITATEA**  
DASILVAALBERTO@HOTMAIL.ES  
**INSTALAZIOAK ETA MANTENIMENDUA**

## **ANTENAK**

**BALATZ c.b.**  
Instalakuntzak eta konponketak antenak - telebista  
Bidebarrieta, 37 Tfnoa. 943 20 05 08  
[balatz@euskalnet.net](mailto:balatz@euskalnet.net) Faxa. 943 20 04 94

**SUKALDE ALTZARIAK**  
\*  
**AROTZEGIA**  
Iparragirre Anaiak  
F. Calbetón, 4 behea Tel. 943 20 29 27  
Tailerra: Apalategi auzoa Tel. 943 12 01 92  
Mobila: 657 79 56 78

ELECTRICIDAD  
**CUADRA EC**  
Barrena 26 / 20.600 Eibar/ Tf943 121642 / F943 204307/ [ec@electricidadcuadra.com](mailto:ec@electricidadcuadra.com)  
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK  
TELEKOMUNIKAZIOA  
INDUSTRIA MANTENUA  
PROIEKTUAK  
ERREFORMAK

Ego Gain z/g  
Tfnoa. 943 12 73 50  
Faxa. 943 20 73 60  
[www.trinmer.com](http://www.trinmer.com)  
**trimer**  
**TELEKOMUNIKAZIOAN PROFESIONALAK**

**ulmar S.L.**  
metalezko eraikuntzak  
aluminiozko eta PVC-ko aroztegia baita toldoak, gortinak, estoreak etabar  
Txonta, 30 - 1. eta behea  
Tfnoak: 943 12 13 67 Faxa: 943 12 01 50  
**ERAKUSKETA**  
EIBARREN, Urkizu 26an (Tel. 943 12 74 01)

**GURIA**  
ELEKTRIZITATEA  
Muntaia eta proiektu elektrikoak  
Matsaria 2 7. pabilioia  
Tel. 943 70 08 95  
Fax. 943 82 00 27  
[www.electricidadguria.com](http://www.electricidadguria.com)

Ego-Gain, 9 ac. ARGIZTAPENA, KONPONKETAK ETA INSTALAZIO ELEKTRIKOAK  
**barra** 677 51 24 62  
943 20 06 97

## **GARBIKETAK**

**Limpieza Multiservicio Eibar**  
Superfizie mota guztietako garbiketa eta mantenimendu zerbitzua  
Tfnoa. 943 254 615  
Mobila 688 609 171  
Barrena, 21 - 1. F

**TREJO GARBIKETAK S.L.**  
Tel: 943-752557  
Faxa: 943-752556  
16 Postakutxatila - Sorluze  
Garbiketa eta mantenimendua

# Informazio gehiagorako



943 20 67 76



## HODI-LIBRATZEAK

**ATAx**

- Hodi-libratzeak
- Saneamenduen garbitzea presio handiko makinariarekin
- Ur ateratzea ufalen ondoren

www.desatax.com  
LARRIALDIETARAKO (24 ordutan): 673 304 222

## IGELTSEROAK

IGELTSERITZA

**CAMILO ALVAREZ** OROKORREAN

- Barne erreformak (sukaldeak, bainugelak, leihoak etb.)
- Gremioen koordinaketa

Jardiñeta, 25 - behea  
620 060 104 (Ernesto)  
600 465 789 (Fran)

**irazabal**  
Jose Maria Irazabal, S.L.

ERAIKUNTZA ETA ERREFORMAK  
IGELTSERITZA ETA  
GREMIOEN KOORDINAKETA

eraikuntzak erreformak igeltsaritza

Azitain Industrialdea, 3 H Pabilioia  
Tfnoa. 943-120108  
[www.irazabal.net](http://www.irazabal.net)

## ITURGINTZA

Gasa  
Kalefakzioa  
Klimatizazioa  
Eguzki Energia

**Fontanería Jardines**

Tel. 943 206 913  
615 782 638  
615 782 637  
Fax. 943 254 929

Jardiñeta, 11 B  
[fontaneriajardines@euskalnet.net](mailto:fontaneriajardines@euskalnet.net)

**MUGICA**  
ITURGINTZA

AIRE EGOKITUA, ITURGINTZA,  
GASAREN INSTALAZIOA, KALEFAKZIOA,  
PETROLIO-PRODUKTUAK, BAINUEN  
ERREFORMAK ETA ABAR...

**HANGROHE** KANILEN BANATZAILEA  
ZORU ERRADIATZAILEA  
EGUZKI-ENERGIA

Egiguretarren, 18  
Tel. 943 20 10 30 - Faxe. 943 20 72 24

## KRISTALAK

**ACHA Kristaldegia**

TAILERRA: ERREKATXU, 3an  
**KRISTALARLOKO SOLUZIOAK**

[c.acha@euskaltel.net](mailto:c.acha@euskaltel.net) eta faxa:  
ERAKUSKETA: Arikitzaneko Zubia 943 20 39 03

## PINTURAK

DECORACIONES  
**AIXA**  
José Luis Irionda

Pintura orokorra  
Margotutako paperak  
Zoruen kolokazioa  
PVC zoruak  
Maketak  
Alfonbrak  
Kortinak  
Etixerakoak  
Osagarriak

Tfnoa. eta Faxe.  
943 20 05 94  
T. Etxebarria, 8 - behea

**baglietto**  
PINTOREAK

Zoru mota guztiak  
Pinturak  
Dekorazioa

Errebal, 21 Tel/Fax: 943 20 19 22

**PINTURAS ARRATE, S.L.**

- Nexa Autocolor
- Pintura industrialia
- 3M produktuen banatzailea

MATSARIA, 34 behea - A  
[parrate@terra.es](mailto:parrate@terra.es)  
Tel. 943 20 41 04 Faxe: 943 70 06 89

**MALVAR**  
PINTURAS

Sostoa, 16 ac behea  
Tfnoa. eta Faxe. 943 700 900  
Mobila. 656 784 396

**VICTOR GONZALEZ FRAIZ**  
PINTURA OROKORREAN

BARNE eta KANPOko  
dekorazioa eta pintura,  
FATXADAK, PINTURA BEREZIAK,  
ENPAPELATUAK, GOTELÉ...

Bizkaia Etorbidea, 9 -ERMUA-  
696-565394 / 943-030540  
[victor-fraiz@hotmail.com](mailto:victor-fraiz@hotmail.com)

## Udako ikastaroak aurkeztu dituzte

Aurreko astean aurkeztu zituzten UEUK udarako antolatutako ikastaroak: 41 ikastaro, iaz baino bat gehiago emango dira, horietako 20 Eibarren bertan (Markeskuan) eta udarako eskaintzak, gainera, dagoeneko martxan dagoen "Ni ere, UEU" kanpainarekin bat egingo du. Ikastaroetan izena emateko epea jadanik zabalik dago eta ikastaro bakoitza hasi baino astebete lehenago itxiko dute (informazioa eta matrikula [www.ueu.org](http://www.ueu.org) helbidean).

Ikastaroen gain, Facebookeko UEUren orriko jarraitzaile egin eta Ilaski Serrano eta Aines Haristoyren bideoa partekatzen dutenen artean, ekainaren 6an udako ikastarorako matrikula zozketatuko dute.



## Argazkia Maiatzean azken txanpan

Maiatzerako programari jarraituta, aurreko asteburuan estudioa kalera atera zuten Deporrek argazkilariek; hori bai, goiz osoan atertu ez zuenez udaletxe azpiko arkupeetan egin zituzten aurreikusitako jarduerak, Durangoko F-Stop taldearen eskutik ailegatu zen kamera estenoipeikoen erakustaldia barne. Egitarauaren azken txanpan sartuta domekan Argazki Rallya egingo da (zuri-beltza paperean eta digitala koloretan): hasiera eta amaiera (14.30ak aldera) Deporren izango dira (izen-ematea 08.30etatik 09.30etara). Argibide guztiak [www.deporeibar.com/argazkia](http://www.deporeibar.com/argazkia) helbidean eskuragarri daude eta modalitate bietarako hainbat sari banatzea aurreikusten dute (70 euro eta ikurra bilduma onenari, 50 euro bigarren onenari, 40 euro hirugarren onenari eta beste horrenbeste 14 urtetik beherako onenari).



## Eibarren 75. urteak ospatzeko logoa

Eibar kirol elkartearen 75. urteurrenaren harira antolatutako logotipo lehiaketara aurkeztutako 40 proposamenen artean, Maria Otxandiano Aranegi eibartarraren lana saritzea erabaki dute epai-mahaiko kideek.



Urteurrenaren irudia izango denaren egilea telekomunikabideetan ingeniari teknikoa da (irudi eta soinu espezialitatean) eta masterra egin du diseinu grafiko, web eta multimedia arloetan. Gainera, umetatik Eibar Kirol Elkarteko zaletu eta bazkidea ere bada. Bestalde, proposatutako goiburuen artean aurretik erabilitakoa baino hoberik topatu ez dutenez, orain artekoarekin ("Bihotz armagina") jarraitzea erabaki dute.

## Urdaibaira akanpada DBH-ko ikasleentzat

Udan Gaztetan programaren barruan, Urdaibaiko akanpada antolatu dute DBH-ko ikasleentzat. Uztailaren 15etik 19ra bitartean egingo da eta gazte bakoitzak 75 euro ordaindu beharko ditu (anai-arreben kasuan, bakoitzak 65 euro). Interesa dutenek domekara arte izango dute horretarako aukera, 18.00etatik 20.00etara Indianokua gaztelekura joanda. Izena ematen dutenen kopurua eskaintako plazena baino handiago izanez gero, irteerara joango direnak aukeratzeko zozketa egingo dute.



## Iguaran eta Mendizabal gaztetxean txapelak



Aurreko asteburuan Eibarren jokatu zen Plazatik Gaztetxera txapelketako kanporaketan Oihana Iguaran amasarra eta Unai Mendizabal zizurkildarra nagusitu ziren.

Eurerekin batera jardun zuten hiru bikoteak Aimar Goenaga-Jon Mikel Mugika, Josu Oiarzabal "Xenpelaar"-Jon Gurrutxaga eta Hodei Irigoien-Imanol Lizarazu bertsolariek osatutakoak izan ziren. Unai Mendizabal eta Oihana Iguaranek 197 puntu eskuratu eta zuzenean finalerdietara pasatzeko sailkatu

ziren; eta Aimar Goenaga eta Jon Mikel Mugika bigarren geratu ziren, 192,5 puntorekin; Bertso kanporaketaren aitzakiarekin, bestalde, gazte mordoa batu zen arratsaldetik eta gaztetxean egindako afarian ederto igaro zuten zapatu gaua.

## Sanjuanetarako prestatzen

Ekaina hasteko egun batzuk **bestarik ez dira falta** eta hil berriarekin batera etorriko diren sanjuanetako giroa somatzen hasita gaude. Aurreko asteko barixakuan eman zuten ezagutzera aurtengo jaiak iragartzeko kartela: Olatz Oñederra Etxeberria elgoibartarraren "Danborraren kolorea". Umeen atalean Iker Arginzoniz Ricafanaren "Supean" (11-14 urte)



eta Salma Losada Fuentezen "Dultzaineroak Nonnahi" (10 urtera arte) lanak saritu dituzte. Eta aste honetan bertan aukeratu dute pegatina lehiaketako irabazlea: Xabier Arrieta Aldazabal eibartarraren "Ez da herri kirola, beraz kontrola!" pegatinak jaso du sanjuanetan alkohol larregi ez edateko umore kutsua duen pegatina aukeratzeko Udalak antolatutako lehiaketa.

Horrez gain, Udalak aurtengo jaietan zeintzuk omenduko dituen erabaki dute: Asier Cuevas korrikalaria, aurtan 10 urte beteko dituen Badihardugu Euska-



ra Elkartea eta abenduan 25 urte beteko dituen ... eta kitto! aldizkaria. Egitaraua lotzeko azken txanpan sartuta, Udaleko Jai Batzordeak bilera deitu du astelehenerako (19.00etan Portalean, 3. pisuan), sanjuanetako jardueretan parte hartuko duten koadrilekin batzeko.

## laburrak

### DJ GAUA

Zapaturako DJ gaua antolatu dute Karrika tabernan: 23.55etatik aurrera Pantakas (Eibar) eta Iker (Ermua) arduratuko dira musika ipintzeaz eta animatzen denak DJ-ek eskainiko duten techno saioan dantzan jarduteko aukera izango du.

### ERAKUSKETA

Honenbestez ikasturte amaierara ailegatu dira Dibujo eta Zeramika Udal Eskolakoak eta, urteroko moduan, oporretan joan aurretik kurtsuan zehar landu dituztenak erakutsiko dituzte Portalean, datorren egunean (30ean) hasi eta ekainaren 19ra arte.

## Gurasoak Elgetan Berbetan

Gurasoak Berbetan mintzapraktika egitasmoko guraso eta horien seme-alabak Elgetan pasa zuten eguna jogan den zapatuan. Eguraldi eskasari aurre eginez, joko mordoia egin zituzten bertako frontoian eta ederto bazkaldu ondoren, arratsal-

de polita pasa zuten guztiek elkarrekin, euskaraz jardunean. Guraso horiek, euskaldunak eta euskaldun berriak, astean behin elkartzen dira ordubetez euskaraz berba egiteko. Izena ikastetxean bertan eman daiteke.



**Aire berriak!**  
Estaziño, 4  
943 254776  
**Khôl** Estilistak

**Izadi**  
LORADENDA  
- Lora eta landare natural eta lehorrak  
- Ezkontzetarako lorak  
San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

**Radio Eibar**  
CADENA  
**SER**  
104,0 FM

Emilio Moro-rekin **MARIDAJE AFARIA**

Maiatzaren 30ean  
21.00etan  
Chalcha Jatetxean  
Prezioa: 50 € BEZa barne

EMAN IZENA  
Chalchako barran  
943 20 11 26  
info@restaurantechalcha.com

**CHALCHA** - nean

**MENUA**

APERITIBOA: Antxoak ozpin-olioaren ogi txigortua tomate zoparekin  
Perretxikoen nahaskia  
(ARDOA: FINCA RESALSO)

Txingarretan egindako legatza kokotxa eta almejen saltsa berdearekin  
(ARDOA: EMILIO MORO)

Behi buztan erregosia, ahuntz-gazta eta irasagarra  
(ARDOA: MALLEOLUS)

Txokolate eta kafe tarta bere izozkiarekin  
(ARDOA: MALLEOLUS DE VALDERRAN)

Pikatzeko: Te-pastak

chalcha RESTAURANTE JATETXEA

EMILIO MORO BODEGAS

## Ruibal saskibaloia taldea mailaz igo daiteke bihar

Aurrez esperotako baino emaitza hobea eskuratu zuten Eibarko taldeak aurreko domekan Elgoibarren jokatu-tako partiduan eta orain nahikoa du han ateratako 15 puntuko aldeari eustearekin mailaz igotzeko. Dena dela, Ruibalen ez dute erlaxatzeko inolako asmorik, ikusita Elgoibarko azken bi minutuetan ere 23 puntuko aldeari zortzi kendu ziotela. Hala ere,

aukera polita dute Ruibalekoek bihar Ipuruan, 16.30etatik aurrera, Elgoibarko Viento Sur-ekoen aurrean igoera eskuratzeko.



## Hiru eibartar Bilboko triatloian

Erdi Ironman distantzian (1,9 kilometro igerian, 90 kilometro bizikletan eta 21 arineketan) aurreko zapatuan jokatu-tako Bilboko III. Triatloian, Delteco Eibar Triatloiko hiru ordezkari izan ziren parte hartzen. Ane Ziaran onena izan zen beste behin 23 urtetik azpikoaren artean eta 7.a sailkapen absolutuan, eta Juanjo Romerok (179.a) eta Ibon Romerok (423.a) postuetan amaitu zuten. Virginia Berasategi emakumezkoetan eta Aimar Agirresarobe gizonetzkoetan izan ziren probaren irabazle.



Ane Ziaran Bilboko errekan.

## Kanporaketa partiduak herriko pilotarientzat

Galtzailea torneotik kanpo geratuko den partidu horietako bi izango dira gaur Astelenan. Eibarko Klub Deportiboko Andonegik eta Bengoetxeak egingo diete aurre neurketa horiei, hark Aretxabaletako Errastiren aurka eta azkenak Errenteriako Zangituren kontra. Neurketa biak lau eta erdiaren barruan jokatu dira, Uda-berri Torneoaren barruan. Aurreko asteburuan Unamunzagak, Bengoetxeak eta Narbairzak, hirurek irabazi zituzten kaiolaren barruan jokatu-tako partiduak.



## Eibarri itzulia emateko aukera paregabea

Mendizaleendako interesgarria izateaz gain, beste edozeinendako ere Eibarri mendiz-mendi itzulia emateko aukera izango dugu datorren asteko zapatuan. Ekainaren 1ean egingo den itzuli horretako 18. edizioa Klub Deportiboaren egoitzaren aurretik irtingo da, goizeko 07.00etan, eta 31 kilometro eta erdiko ibilbide zirkularra osatuko du, Eibarko gailur garrantzitsuenetatik pasatuz; bidean zehar, bi anoa-postu egongo dira, bata Azurtzan eta bestea Arraten. Ibilaldia doakoa bada ere, beharrezkoa da izena ematea Deporren eta kamisetak salgai zango dira bost eurotan.

### Finalista Eguna ere ate joka

Hurrengo egunean, ekainaren 2an, Finalista Eguna ospatuko da Arraten. Tiro-pitxoian egingo den bazkarirako txartelak salgai daude domekara arte Deporreko tabernan: helduak 15 eurotan erosi dezakete eta, haurren kasuan, 8 eurotan.



Davide Martinelli eta Damiano Cima Italiako txirrindulariak.

## Debarreneko Etxabetarrak bikain euren herrian


Domekan Bergaran jokatu-tako Pentekoste sarian, bertako Jokin eta Beñat Etxabe anaiek Asentzio igotzerakoan aurrean osatu-tako multzoan sartu ziren eta Caja Ruraleko Carlos Jimenez irabazlearen denbora berean helmugaratu ziren, 7. eta 9. postuetan. Colindresen jokatu-tako Santisteban Me-

morialean, bestalde, Debarreneko Borja Abasolo aurretik heldu zen 17 laguneko tropel-txoan sartu zen, helmugan 8.a izateko. Eta Bidasoako Itzulian Klub Deportiboko taldearekin parte hartu zuen Davide Martinelli afizionatu-tako Italiako txapel-dun berria da erlojuz kontrako modalitatean.



## Waterpolisten mailaz igotzeko azkena

Bero joan zen neurketan, azkenean amore eman behar izan zuten Urvat-Urkotronik waterpolo taldekoek Getxon jokaturako partiduan. Aurreko asteburuan Orbean erraz nagusitu eta gero, oraingoan 6-5 galdu zuten Davide Cerchiren mutilek Bizkaia aldean eta partiduan bizi izandakoak ez du gauza lasairik iragartzen gaur, 20.45etatik aurrera, jokatu den partidu erabakigarriako. Epailerek ere ez zuten larregi asmatu partiduan (eibartarren aurkako erabaki okerrak hartu zituzten: Mitxelenaren kanporatzea, Reciori baliorik gabe lagatako gola) eta haraino joandako Eibarko zaletuek "oso erreta" bueltatu ziren.



## berriak

### FOBALL ZALETUA

Garajes Garcia.com-ek eta EzDok-ek goizeko 09.00etan eta Esmorga Akarak eta Koskor-ek 10.30etan jokatu dituzten partiduetatik irtengo dira hurrengo asteburuan foball-zaletuko Kopako finala jokatu duten izen biak. Koskor (5-0 Alkidebari) eta Garajes (4-0 Aretori) erraz sailkatu ziren moduan, EzDok-ek zailago izan zuen Fontaneria Mujikarekin (3-2) eta Esmorga Akara penaltietan sailkatu zen, Txokorekin bina berdindu eta gero.



## Garbiñe Muguruza tenislaria munduko 72.a



Jose Antonio Muguruza eibartarraren alaba gero eta gorago dago tenisaren WTA munduko sailkapenean eta, Erromako bigarren txandan lortutako azken emaitzei esker, sailkapen orokorreko 72. postura egin du jauzia. Lara Arruabarrena tolosarra du aurretik, 70. postuan. Aste honetan Muguruza Estrasburgoko torneoan dabil jokatzen. Venezuelan jaio eta Bartzelonan hezi den tenislaria zazpi torneo ITF irabazi ditu dagoeneko.

## IES UNIBHI EIBAR-ERMUA

AUKERA ZABALENA!

**AURREMATRIKULA:  
MAIATZAREN 27TIK EKAINAREN 7RA**

**HEZIKETA ESKAINTZA:  
A ETA D EREDUAK**

**PROIEKTUAK ETA JARDUERAK**

Nazioarteko ikasle-trukeak	Urrats Bat
UNI Encounter	Agenda 21
Hizkuntzaren normalkuntza	Informatika ingelesez
Osasunarentzako programa	Hezibi

**HEZIKETA ZIKLOAK**

**MARKETING ETA MERKATARITZA**

Merkataritza Jarduerak  
Nazioarteko Merkataritza

**INFORMATIKA**

Mikroinformatika sistemak eta sareak  
Plataforma anitzeko aplikazioen garapena  
Sareko informatika sistemen administrazioa

**ADMINISTRAZIOA**

Administrazio kudeaketa  
Administrazio eta finantzak

**HEZIKETA FISIKOA**

Aktibitate fisiko eta  
kirol animazioa



TEL: 943 20 84 44  
www.iesunibhi.com  
uni@iesunibhi.com

twitter @UniEibarErmua  
www.facebook.com/iesunibhi

## Concepto Egilek abantaila hartu du igoerarako

Areto-foballeko Debabarreneko talde nagusiak 2-3 irabazi zion Broncesval Montcadari Kataluniko taldearen kantxan jokaturako partiduan. Azken jardunaldira arte bere multzoko liderra izan zen taldeak ez zien erraztasunik eman gure eskualdekoei eta kanporaketa, nahiz eta abantaila izan, ez dago hain argi Concepto Egilekoentzat. Itzulerako neurketa bihar jokatu da Elgoibarko Olariaga kiroldegian, 18.30etan hasita. Buitrek sartu zituen Debabarreneko en hiru golak.



## Alcoyano-Eibar mailaz igotzeko kanporaketan

Eibar Foball Taldeak 2. A mailara igotzeko ondo bidean eman beharreko hiru urratsetatik lehenengoari ekingo dio domekan, 18.00etatik aurrera, Alcoyko El Collao zelaian. Azken urteotan beste bitan egokitu zaie eibartarrei Levante aldekoekin indarrak neurtzea eta balantza berdinduta dago: aurrekoan eibartarren alde eta orain dela urte bi kontra. Alcoyanok bere multzoko 4. postuan amaitu zuen liga. Eibartik autobusik antolatu ez bada ere, Benidormeko eibartarren koloniak bai bete duela bat eta Garitanoren mutilak ez dira bakarrik egongo Alcoyn. Itzulerako partidua ekainaren 2an, domekan, jokatu da Ipuruan 18.00etan, eta sarerak salgai daude dagoeneko.



Diego Jimenezek Alcoyanorekin jokatu zuen.

## Urbateko igerilariak topera asteburuan

Ez daude ezer oparitzeko Urbat-Urketronik-eko igerilariak eta, asteburuan jokaturako hiru frentetan, ondo erakutsi zituzten zein indartsu dauden. Markel Alberdi igerilari handiak Espainiako selekzioarekin jardun zuen Gijongo nazioarteko torneoan eta hirugarrena izan zen hiru probetan. Taldeko alebinek, bestalde, Legazpin jokaturako txapelketan ohorezko hainbat postu eskuratu zituzten, hamar lehenengoen artean. Eta domekan jokaturako Gipuzkoako eskolarteko txapelketetan, Urbateko boskoteak bikain jardun zuen, lau proba irabaziz: probintziako lau txapeladun izateaz gain, errelebotan azpitxapeladunak izan ziren.



Maite Barruetabeña, Anie Erkiaga, Lucia Basurko, Kattalin Izagirre eta Maria Alaezek txapelketa bikaina egin zuten.

## Urkiko neskak bikain zubietako torneoan



Donostiako Realak antolatutako torneoan izan dira Urki foball taldeko infantil mailako talde biak eta baita maila bikainean jardun ere. A taldeak jokaturako hiru partidua irabazi zituen (1-0 Bergarari, 6-0 Ordizari eta 3-0 Mondragoni) eta golik hartu gabe amaitu zuen torneoa. B taldeak, bestalde, partidu bat irabazi eta bi galdu zituen; hala ere, aurpegia eman zuen norgehiagoka guztietan.

## Eibar Eskubaloia Kopako finalean

Ez zen samurra izan, baina eibartarrak 23-27 nagusitu ziren Usurbilen jokaturako partiduan. Maila baxuago batean jokatzeko badute ere, Usurbilgo Atez-Atek gogor egin ziren Eibar Eskubaloikoei eta azken hauek hobeto jardun behar dute Elgoibarren aurka jokatu beharreko Gipuzkoako Koparen finalean. Elgoibartarrek Ereintza menperatu zuten ezustean.



## GENARO AZKARRAGA FULDAIN

I. urteurrena: 2012-V-26

"EZ ZAITUGU  
INOIZ AHAZTUKO"

zure familia



# laztanak emoten...

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.



Zorionak, CLAUDIA, haraiñegun urtia bete zenduan-eta. Gurasuen eta aitxixa-amamaren partez.



Zorionak, EKHI Castro, gaur urtia betetzen dozu-eta. Etxekuen partez.



Zorionak, JOSU, txapeldun, domekan sei urte beteko dozuzelako. Oso ondo pasa. Etxekuen partez.



Zorionak, LAIA, domekan lau urte egingo dozuz-eta. Etxekuen eta, batez be, amamaren partez.



Zorionak, PABLO, atzo bost urte bete zenduazelako. Familixaren eta lagunen partez.



Zorionak, EKHI, bixar sei urte egingo dozuz-eta. Holan jarraitu eta, zelan ez, gurekin. Aupa 93!!!



Zorionak, ALEX, bixar lau urte egingo dozuz-eta. Patxo haundi bat etxeko guztien partez.



Zorionak, pirata ENDIKA, gaur bi urte betetzen dozuzelako. Aimar, Aitana eta famelixaren partez.



Zorionak, UNAX, bixar bi urte beteko dozuz-eta. Patxo haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, GARAZI, martitzenian hamar urte bete zenduazena-eta. Etxekuen eta, batez be, Gaizkaren partez.



Zorionak, SABINA Arizmendiarieta, atzo zure lehelengo urtia bete zenduan-eta. Familixaren partez.



Zorionak, ANER, gaur zazpi urte betetzen dozuz-eta. Muxu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, MARKEL, baita aitaxo Jon eta amatxo Kristinari be. Ondo ospatu lehelengo urtia, zuen famelixako guztien partez.



Zorionak, ENARA, haraiñegun bi urte egin zenduazena-eta. Poztasun haundiz betetzen gaittuzu. Familixaren partez.




Zorionak, ARATZ Iturbe Arakistain (lehelengo urtetxua) eta aititte Joaquin, gaur urtiak betetzen dozuez-eta. Familixaren partez.



Zorionak, ADEI, gure txapeldunak domekan hiru urte egingo dittu-eta. Muxu potolo bat Ekhiren eta famelixa guztiaren partez.



Zorionak, JONE, gaur bi urte egiten dozuz-eta. Etxekuen eta, batez be, Markelen partez.



Zorionak, XABI!!!, gure txapeldunak bederatzita egin dittu-eta. Patxo haundi bat etxeko guztien partez.



Zorionak, amama ESTHER eta aitxixa TXUS, ezkondu ziañaziela 50 urte betetzen diranian. Ederto pasatuko dogu bixar. Familixa guztiaren partez.

Zorionak, ASIER (hiru urte) eta JONE (11) gaur urtiak egiten dozuzelako. Etxekuen eta, batez be, Ikerren partez.



Ongi etorri hillaren 16xan jaixotako MARENI. Zorionak bere neba BEÑAT eta famelixaren partez.


Ongi etorri, JOL, hillaren 21etik gure artian zagozelako. Eta zorionak, IRAIA eta LUR! Familixa guztiaren partetik.



Zorionak, GORKA, hillaren 21ian 9 urte egin zenduazena-eta. Ondo pasau jaunartze egunian. Familixa guztiaren partez.



Ongi etorri, KAYLA, haraiñegunetik gure artian zagoz-eta. Laztan haundi bat aita, ama eta Cynthiari, famelixaren partez.



Zorionak, IZARO, bixar urtebete egingo dozu-eta. Familixa guztiaren eta, batez be, Enekoren partez.

## BARIXAKUA 24

### EUSKAL JAIA

**17.00.** "Kalian Jolasian". Untzagan.

**19.30.** Kale animazioa.

**22.30.** Kontzertua eMePebo5t ErrockMerixa taldearekin, Untzagan.

### UMEENDAKO ZINEA

**17.30.** "Thomas y sus amigos. Rescate en la isla de la niebla". El Corte Inglés-ean.

### AUDIZIOA

**17.30.** J.B. Gisasola Musika Eskolako audizioa. Portalean.

### BILERA

**19.00.** Sanjuanetarako ekitaldiak prestatzeko batzarra, Jaixak Herrixak Herrixandakok deituta. Eibarko Bizikleta Plazan.

## ZAPATUA 25

### BATZARRA

**09.30.** Eskubide Sozialen Gutuna eraikitzen hasteko batzarra. Hezkuntza Esparruan.

### EUSKAL JAIA

**10.00.** Artisau eta baserriarren azoka, Eibart elkarte eta Eibarko baserriarren eskutik.

**12.00.** Herri-kirolak eta bertsolariak: lasto-jasotzea, ingudea, lastoa botatzea eta burdia.

**13.00.** Eskolen arteko VI. Herri-kirol lehiaketa: Mogel Isasi, Aldatze eta Itzioren arteko norgehiagoka. T. Etxebarria kalean.

**18.30.** Bertso-triki herri parranda, Hankamotxak Bertso Eskola eta Eibarko trikitilariekin. Untzagako karpatik hasita.

**22.00.** Kantu afaria, A. Jainagak eta J. Garatek musikatuta. Jarraian, erromeria Jainaga eta Unai Narbaizarekin. Karpan.

### UMEENTZAKO TAILERRA

**17.30.** Afrikako maskarak egiteko tailerra, umeentzat. El Corte Inglés-ean.

### DJ GAUA

**23.55.** Pantakas (Eibar) eta Iker (Ermua) DJ-en techno saioa. Karrika tabernan.

## DOMEKA 26

### ARGAZKIA MAIATZEAN

**08.30.** Argazki-rallyrako izen-ematea (09.30ak arte). Klub Deportiboan.

### IBILALDIA

**09.30.** Ibilaldira joateko autobusen irteera. Toribio Etxebarria kaletik.

### HITZALDIA

**10.30.** "Ondo jan hobeto bizitzeko", Silvana Huegun nutrologoaren eskutik eta Hitez baserriko emakumeen elkarteak antolatuta. Unzaga Plaza hotelean. Jarraian, bisita kulturala (museoa, San Andres eliza...). Bazkaria Arrateko Krabelin hotelean.

### EUSKAL JAIA

**12.00.** Kalejira: Ezpalak jaialdiko taldeak, gaiteroak, joaldunak eta trikitilariak lagunduta. Urkizutik.



**12.30.** Ezpalak Dantzen Jaialdia: "Sorgin-dantzak". Taldeak: Kezka (Eibar), Oinarin (Antzuola), Byttomfoten folkedans-gruppe (Oslo, Norvegia), Callús-eko bastoners-ak (Callús, Katalunia), Xiberoko ikastoletako ikasle ohien elkarte (Zuberoa), Loramendi (Aretxabaleta), Le Quadrille Occitan (L'Union, Frantzia) eta Esbart català de dansaires (Bartzelona).

**14.30.** Herri-bazkaria. Untzagako karpan.

**17.00.** Erromeria, Aiko taldearekin. Untzagan.

**19.00.** Larrain dantza herrikoia. Untzagan.

**20.00.** Larrain dantza herrikoia. Depor aurrean.

## ASTELEHENA 27

### IKASTEN

**10.00.** "Mirando al cielo" (astronomia). Behe Tokian.

### BILERA

**19.00.** Sanjuanetako jardueretan parte hartuko duten koardilantzat bilera, Jai Batzordeak deituta. Portalean (3. pisuan).

## MARTITZENA 28

### ANTZERKIA

**15.00.** "Ebook" (Spasmo Teatroa). Debabarreneko Eskolarteko XXIX. Antzerki Erakusketa. Hezkuntza Esparruan.

### EKINTZAILEAREN EGUNA

**18.00.** Enpresa Azoka.

**18.30.** "Bizirik al dago espiritu ekintzailea Debabarrenean?" eztabaida.

**19.30.** Debabarrena Ekinean! eta Bai Industriari sariak banatuko dituzte. Debegesan (Azitaingo industrialdean).

## EGUAZTENA 29

### IKASTEN

**11.00.** Kafe-tertulia: "Aficiones". Untzagako jubilatu etxean.

### MANIFESTAZIOA

**19.00.** Greba Orokorrekin bat egiteko manifestazioa. Untzagatik hasita.

### DANBORRADA

**19.00.** Sanjuanetako danborradarako entsegua, umeendako.

**20.00.** Helduendako entsegua. Bittor Sarasketan udalak duen lokalean (Beistegi eraikinean).

### BILERA

**19.30.** "Jun Hemendik" herri mugimenduaren bilera irekia. Eibarko Bizikleta Plazan ("Galeoros"-en, euria eginez gero Kultur).

## HOROSKOPOA

### ARIES

Zentratu beharko zinateke. Azken aldian gauzak ahaizen zaizkizu eta ez dakizu non zabilzitan. Hartu denbora zuretazko.

### TAURUS

Egin oihu, ondo geratuko zara-eta. Barruko tentsioa askatzeko metodo ona da, baita eraginkorra ere. Proba ezazu.

### GEMINI

Nor uste duzu zarela? Ez saiatu zure eskuetatik kanpo dauden gauzak egiten, emaitzak latzak izan daitezkeelako.

### CANCER

Gauzak gaizki egiten dituzula uste baduzu, ez da horrela. Ez da zortea: egiten duzuna egiten duzula ondo dago.

### LEO

Amodiozko filme bateko protagonista diruduzu. Dena da arrosa kolorekoa. Merezitakoa, momentu txarren ostean.

### VIRGO

Produktu bat erabiltzen hasi baino lehen, begiratu zein berezitasun dituen. Bestela, ezustekoren bat hartu dezakezu.

### LIBRA

Beti ezin zara itxaroten egon. Eman aurrerapausoa eta gauzak zure kabuz egiten hasi zaitez. Zugan sinestu ezazu.

### SCORPIUS

Azken finean badakizu dena ondo joango dela, dena ondo irtetzen zaizulako. Zergatik den horrela? Zuk ere ez dakizu.

### SAGITTARIUS

Dena mugitzen da zure inguruan eta zu geldigeldi, zer egin jakin gabe. Espabila zaitez eta ipurdia mugitu, alperrori!

### CAPRICORNIUS

Astroak alde izango dituzu eta zure proposamen guztiak beteko dira, pixka bat saiatuz gero. Opari gutxi izaten da.

### AQUARIUS

Aukerak datozen bezala baliatu egitez: bestela, gerta daiteke inoiz gehiago ez agertzea. Trenak bitan ez dira pasatzen.

### PISCIS

Hotzarekin nazkatuta? Eta beroak ekartzen dituen euli eta bestelakoak ez dira nazkagarriak ala? Konformatu!

Ostirala	Larunbata	Igandea	Astelehena	Asteartea

## erakusketak

### ✓ Maiatzaren 26ra arte

**JAVIER FERNANDEZ FERRERAS.** Portalean.  
**JUAN ARMENTIA**ren "Barnetik. Más allá del Olimpo" argazki erakusketa. Portalean.  
**BOSCO MERCADAL**en "Fotopoemas" argazki erakusketa. Portalean.  
**40. NAZIOARTEKO GIPUZKOA SARIA** argazki erakusketa. Topalekuan.

### ✓ Maiatzaren 31ra arte

**32. ARGIZAIOLA LEHIAKETA.** Deporren.  
**DEPORTIBOKO ARGAZKILARITZA TALDEA**ren argazki erakusketa. El Ambigú eta Portalea tabernetan eta Untzagako jubilatuetxean.

### ✓ Ekainaren 19ra arte

**DIBUJO ETA ZERAMIKA UDAL ESKOLA**koen ikasturte amaierako erakusketa. Portalean.

## hildakoak

- Elena Lariz Ironto. 86 urte. 2013-V-15.
- Alicia Tolosa Mujika. 81 urte. 2013-V-20.
- Belen Gorrotategi Furundarena. 87 urte. 2013-V-20.

## jaiotakoak

- Mara Perez Ibañez de Garayo. 2013-V-14.
- Daniyal Khan. 2013-V-14.
- Oinatz Lopez Gonzalez. 2013-V-15.
- Maren Garate Amorrosta. 2013-V-16.
- Ibai Uría Azurmendi. 2013-V-17.
- Kayla Mañas Outeiriño. 2013-V-21.

## farmaziak

### ✓ barixakua 24

EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)  
 GAUEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)

### ✓ zapatua 25

EGUNEZ **Iraundegi** (Sostoaarren, 10)  
 GAUEZ **Ugarte** (Sta. Zezilia, z/g)

### ✓ domeka 26

EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)  
 GAUEZ **Cortina** (Zubiaurre, 29)

### ✓ astelehena 27

EGUNEZ **Las Heras Larramendi** (Calbetón, 19)  
 GAUEZ **Ibarrondo** (Zeharkalea, 2)

### ✓ martitzena 28

EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)  
 GAUEZ **Aranburu** (Gipuzkoa etor., 46)

### ✓ eguaztena 29

EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)  
 GAUEZ **Alberdi** (Zubiaurre, 9)

### ✓ eguena 30

EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)  
 GAUEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)

### ✓ barixakua 31

EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)  
 GAUEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)

## zinea Coliseoan

**24an: 22.30 / 25ean: 19.45, 22.30**  
**26an: 20.00 / 27an: 20.30**

**(1 ARETOAN) "Alacrán enamorado"**  
**(2 ARETOAN) "Ayer no termina nunca"**  
**(ANTZOKIAN) "Fast & Furious 6"**

	1	3	6	8	7	
6	4		2		1	
4		1			9	
	6	7	5	3	4	
7			8			1
	9		6		3	5
3	5	1	9		6	

## SUDOKUA

6	3	4	7	9	8	2	5	1
1	8	7	2	3	5	4	9	6
2	9	5	6	1	4	7	3	8
9	1	3	4	5	7	8	6	2
7	2	6	1	8	9	3	4	5
5	4	8	3	2	6	9	1	7
4	5	2	9	7	1	6	8	3
3	6	1	8	4	2	5	7	9
8	7	9	5	6	3	1	2	4

AURREKOAREN EMATZA

## telefono jakingarriak

SOS deiak.....112  
 Pegora.....010  
 Udaletxea.....943 70 84 00  
 Portalea.....943 70 84 39  
 Udaltzaingoa.....943 20 15 25  
 Mankomunitatea 943 70 07 99  
 Debegesa .....943 82 01 10  
 KIUB .....943 20 38 43  
 Epaitegia .....943 03 34 00  
 Iberdrola .....901 20 20 20  
 Naturgas.....902 12 34 56  
 DYA Larrialdiak ..943 46 46 22  
 Gurutze Gorria...943 22 22 22  
 Mendaro osp.....943 03 28 00  
 Anbulategia .....943 03 25 00  
 Torrekoa .....943 03 26 50  
 Errepideak.....902 11 20 88  
 Ertzaintza .....943 53 17 00  
 Eusko Tren .....902 54 32 10  
 Pesa.....902 10 12 10  
 Taxiak.....943 20 30 71  
 .....943 20 13 25  
 Alkohol.Anon. ....629 14 18 74  
 Al-Anon/Alateen ..650 26 59 63

## autobus ordutegiak

**EIBAR-DONOSTIA.** Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.30etatik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 20.35. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 15.30etara ordu, 15.00, 15.30etatik 20.30etara ordu eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.30etatik 20.30etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.  
**EIBAR-BILBO.** Lanegun eta zapatuak: 06.40-etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40-etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.  
**EIBAR-GASTEIZ.** Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.  
**GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.  
**EIBAR-IRUÑEA.** Lanegunak: 07.45, 13.50 eta 14.45. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00, 17.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.  
**EIBAR-ARRATE.** Zapatuak: 14.00. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Jaisteko: ordu erdi geroago.  
**EIBAR-ELGETA.** Lanegunak: 06.40, 08.40, 13.40, 15.40, 16.40, 18.40 eta 20.40. Zapatu eta jaiegunak: 08.40, 13.40, 15.40 eta 20.40. **ELGETA-EIBAR.** Jaisteko: 20 minutu geroago.  
**EIBAR-MENDARO.** Lanegunak: 06.10 eta 07.05etatik 21.55etara 20 minutu eta 22.20. Zapatuak: 07.00etatik 22.00etara ordu eta 23.10. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu eta 22.15. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.15, 06.50-etatik 21.10etara 20 minutu eta 22.05. Zapatuak: 06.45etatik 20.45etara ordu, 22.05 eta 22.45. Jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara eta 22.05.  
**EIBAR-LOIU.** Egunerok: 05.50, 09.50, 13.50, 17.50 eta 21.50. **LOIU-EIBAR.** Egunerok: 07.15, 11.15, 15.15, 19.15 eta 23.15.

## tren ordutegiak

**EIBAR-DONOSTIA.** Egunerok: 08.13etatik 22.13etara ordu. Lanegunak: baita 06.15 eta 07.13.  
**DONOSTIA-EIBAR.** Egunerok: 07.47etatik 20.47etara ordu. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.  
**EIBAR-BILBO.** Egunerok: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.36 eta 21.36. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunerok: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

## 1. Etxebizitza

### 1.1. Salgai

– Pisua salgai Errekatxun. 2 logela, egongela-jangela eta komuna. Guztiz berriztuta eta jantzita. Kalefakzioa. Saltzeko premia handia. Prezioa adosteko. Tel. 659-757572.  
– Babes Ofizialeko pisua salgai Soraluzen. 3 logela, trasteroa eta garajea. 80 m<sup>2</sup>. Tel. 637-321970 eta 635-728510.  
– Loft bikaina salgai edo alokagai. Argitsua. 102 m<sup>2</sup> + 40 m<sup>2</sup>ko lorategia. Tel. 656-723437.

### 1.2. Errentan

– Elgetan pisua alokagai. 2 logela, 2 komun, sukalde-egongela zabala eta balkoia. 70 m<sup>2</sup>. Oso egoera onean. Tel. 618-272943.  
– Logela alokagai Eibarren. Tel. 686-735525.  
– Neska arduratsua pisua hartuko luke alokairuan. Tel. 618-354218.  
– Buhardila txukuna alokagai Txontan. 5. pisua. Igogailurik gabe. Tel. 626-144098.  
– Pisua hartuko nuke errentan Eibarren. Tel. 679-910991.  
– Pisua hartuko nuke errentan Eibarren. Tel. 632-883925.

## 2. Motorra

### 2.1. Salgai

– Mobilhome salgai Mutrikuko Santa Elena kanping-ean. 2 logela, egongela eta komuna (dutexarekin). Abantzea sukaldearekin. Etxetresna elektriko berriak. Itsasora begira. Tel. 650-818642 eta 943-203091.

## 3. Lokalak

### 3.1. Salgai

– Garaje bikoitz itxia salgai Bittor Sarrasketan. 32 m<sup>2</sup>. Tel. 617-336462.

### 3.2. Errentan

– Aisialdirako lokala alokagai, barrarekin prestatuta. Koadrilendako proposa (adin nagusikoak). 80 m<sup>2</sup>. Udal ordenantza berriari egokitua. Tel. 679-425467.  
– Ilepaindegi berriztua alokagai. Merke. Atenditu ezin delako. Tel. 699-682310.  
– Industri-pabilioia alokagai Elgoibaroko Olaso poligonoan jubilatzaioarengatik. Mekanizatuetarako makinarria aukeran instalazio osatuan. Tel. 649-258913.

## 4. Lana

### 4.1. Lan bila

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 626-197217.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira:  
Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro.  
Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta sukaldari-laguntzaile moduan. Tel. 653-075865.  
– Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 634-887814.  
– Emakumea eskaintzen da sukaldari-laguntzaile moduan, umeak edo nagusiak zaintzeko, hoteleko kamarera jarduteko eta garbiketarako egiteko. Tel. 608-474923.  
– Neska euskalduna eskaintzen da udako oporretan umeak zaintzeko. Edozein ordutegi. Tel. 618-814064.  
– Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta pegorak garbitzeko. Tel. 617-571210.  
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Orduka. Tel. 648-180233.  
– Neska arduratsua eskaintzen da umeak edo nagusiak eta garbiketarako egiteko. Asteburuak barne. Tel. 618-354218.  
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 631-463492.  
– Emakumea eskaintzen da lan egiteko. Orduka eta baita asteburuetan ere. Tel. 657-156254.  
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Interna edo orduka. Baita asteburuetan ere. Tel. 627-652870.  
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 616-457254.  
– Emakume arduratsua eskaintzen da gaixoak zaintzeko etxean edo ospitalean. 10 urteko esperientzia. Tel. 631-385949.  
– Neska eskaintzen da asteburuetan nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 646-821678.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, sukalde-laguntzaile jarduteko, hoteleko kamarera moduan eta garbiketarako egiteko. Tel. 608-474923.  
– Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta baserrian jarduteko. Esperientzia. Tel. 686-077316.  
– Neska eskaintzen da 10.30etatik 16.30etara nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 658-458271.

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

– Emakumea eskaintzen da orduka nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 680-526228.  
– Neska eskaintzen da 10.30etatik 16.30etara nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 608-886701.  
– Emakume arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko (baita gauzez ere) eta garbiketarako egiteko. Tel. 625-895460. Carmen M<sup>a</sup>.  
– Emakume arduratsua eskaintzen da garbiketarako egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko (baita gauzez ere). Tel. 627-768684.  
– Neska arduratsua eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 608-866535.  
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 627-031640.  
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta kamarera jarduteko. Tel. 671-971930.  
– Mutila eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 691-726738.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka edo interna. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 652-361252.  
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 688-234524.  
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 602-564995.  
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 626-197217.  
– Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Orduka eta asteburuetan ere bai. Tel. 618-354218.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 674-909705.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Erreferentziak. Tel. 615-007377.  
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta soziedadek edo pegorak garbitzeko. Tel. 628-014327.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 678-255663.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauzez ere. Tel. 639-962219.

– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 943-748899 eta 685-724861.  
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 689-436454.  
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-004374.  
– Neska eskaintzen da goizez lan egiteko. Erizain-laguntzailea. Erreferentziak. Tel. 616-607121 eta 943-207183.  
– Neska euskalduna eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 606-502567.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Externa edo gauzez. Erreferentziak. Tel. 662-252150.

### 4.2. Langile bila

– Estetizista behar da Eibarko ileapaindegi baterako. Lan giro ona. Tel. 678-674250.  
– Ilepaindegiarako langilea behar da. Eskolako titulu ofiziala eta esperientzia baloratuko dira. Tel. 615-754621.

## 6. Denetarik

### 6.1. Salgai

– 11 tomoko "La Gran Enciclopedia Larousse" (25 euro) eta 8 tomoko "Reader's Digest" hiztegi entziklopediko ilustratua (12 euro) salgai. Tel. 943-120030.  
– Academy gitarra elektrikoa salgai. Estreinatuta gabe. Anplifikadorearekin, 200 euro; gabe, 180. Tel. 654-926243.  
– Ostalaritzarako tresneria salgai negozio aldaketagatik: kafetera, izotz-makina, musika aparatua (banaka ere saltzen dira). Tel. 665-720977.  
– Ohe-kabia salgai, 90ekoa. Oso egoera onean. 100 euro. Tel. 628-341448.

### 6.2. Eman


– Hilabeteko katarra eta katemea oparitzen dira. Tel. 626-553178.  
– Baserrian jaiotako katakumeak oparitzen dira. Tel. 646-601923.

### 6.3. Galdu/Aurkitu

– Quicksilver txanozko sudadera urdina galduta Unizaga plazan aurreko astean. Tel. 687-472084. Ane.  
– Txanozko sudadera beltza galduta aurreko barixakuan Telepizza eta San Agustineko bidean. Tel. 687-472084. Ane.  
– Emakume belarritakoa (perla zuria eta kristalxoekin) galduta zen orain dela aste bi Elorza farmazia inguruan. Tel. 645-708093. M<sup>a</sup> Carmen.  
– Umearen urrezko pulstera (izenarekin) aurkitu du Txaltxa Zelai kalean. Tel. 610-816837.

### 6.4. Bestelakoak

– Umetxoarendako sehaska eta kotte-kapota hartuko nitzuke. Tel. 696-509360.



**Debegeza**

Debabarreko Garapen  
Ekonomikorako Elkartea

Sociedad para el Desarrollo  
Económico de Debabarrena

**Debabarrena  
Ekinean!**

## **Ekintzailearen Eguna 2013: Maiatzak 28**

- 18:00-18:20.** **Debabarrena Ekinean! Enpresen Azoka.**  
Parte hartuko duten enpresen produktu edo zerbitzuen zozketa.
- 18:30-18:30.** Ongi-etorria, harrera eta materialen banaketa.
- 18:30-19:30.** Eztabaida irekia: "Bizirik al dago espirtu ekintzailea Debabarrenean?". Parte hartu!  
**#EKeguna13.**
- 19:30-19:45.** 2012ko **Debabarrena Ekinean!** Errekonozimenduak. **Rural Kutxaren** babesarekin.
- 19:45.** Amaiera eta lunch-a.

**DEBEGESA. Azitain Industrialdea, 3 bis (Eibar)**

**Konfirmazioa:** [ekintzaile@debegeza.com](mailto:ekintzaile@debegeza.com) / 943 82 01 10

 [facebook.com/debabarrenaekinean](https://facebook.com/debabarrenaekinean)

 @ekinean



EUSKADI *Giza giza*

EUSKO JAURLARITZA

INDUSTRIA, BERRIKUNTZA,  
MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,  
INNOVACIÓN, COMERCIO Y TURISMO

EUSKADI *Sabiduria*

Lehiatzeko aldatuz goaz  
transformamos para competir



# **100 urte etorkizuna sortzen**



**Izenematea:**  
**Maiatzaren 27tik ekainaren 7ra arte**

Isasi, 36 - 20600 Eibar - Tfno. 943 20 32 44  
e-mail: [eibar@armeriaeskola.com](mailto:eibar@armeriaeskola.com)

- **FABRIKAZIO MEKANIKOA**
- **MANTENIMENDUA**
- **MEKATRONIKA**
- **ROBOTIKA**
- **ELEKTRIZITATEA**
- **ELEKTRONIKA**
- **AUTOMATISMOAK**
- **TELEKOMUNIKABIDEAK-  
INFORMATIKA**
- **DISEINU INDUSTRIALA**

**[www.armeriaeskola.com](http://www.armeriaeskola.com)**

www.aki.es



ADI,  
IREKI DUGU!

**DURANGO**



**€36,95**

Erretxinazko  
armairua, Jolly

Apalduna.

Neurriak: 166 x 68 x 38 cm.



**AKÍ DURANGO - BI-2632 - Montorreta kalea**



**Brikolajea • Lorezaintza • Dekorazioa**